



Lezoko Unibertsitateko Udala

Elkar  
**zainduz**  
Lezo

2025PE090006

---

## **Brigadako langile lanpostu bat zerbitzu eginkizunetan denboraldi batez betetzeko deialdiaren oinarriak.**

---

### **LEHENA. DEIALDIAREN XEDEA.**

Oinarri hauen xedea da, Brigadako langile lanpostu bat (312. lanpostua), zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdia arautzea.

Lanpostua C sailkapen taldeko C2 azpitaldekoa da eta 2. hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ezarria du.

Lanpostuaren ezaugarriak hurrengoak dira:

- C2 taldea.
- Destino osagarria: 18.
- Osagarri espezifikoa: 18.138€
- Dedikazio bereziko osagarria: %20.
- Enpresa maila: 11.
- Hizkuntza eskakizuna: 2.

Lanpostua lanaldi osokoa da Lezoko Udalean aplikagarria den egutegiren baitan.

### **BIGARRENA. LANPOSTUAREN EGINKIZUN NAGUSIAK.**

#### Udalerriko mantenu eta konpontze lanak

- Makinekin zangak ireki, zoladurak txikitu, hondakinen karga mekanikoa, hondakinen garraioa.
- Hodien konexioa, zangen tapatzea eta trinkotze edo konpaktatzea, kutxetak egin, kutxetan tapak altxa eta nibelatu, asfaltatze lanak, espaloien, hormatxoeren, eskaileraren eta arrapalen hormigonatzea, kunetak egin, zintarriak jarri, landa eremuko errepideak egin eta mantendu, zoladuretan baldosak eta bordilloak jarri, errepideen margotze horizontalak ...
- Hiri altzarien jartzea (altzariak, eserlekuak, atepak, paperontziak, hesiak, ...), seinaleak jarri eta mantendu, trafiko margotze txikiak, piboteak, haur jolas parkeen mantendu lanak egin ...
- Udalerrian hautsiak diren zoladuren konpontzea.
- Garbiketa lan bereziak; sepiolitarekin isurketak bildu, landa eremuko ur garbiketa bereziak, hondakin bilketa berezirik, gainezka egiten duten arketen garbitzea, sasi kentzea, arriskuan den zuhaitzen bat kendu, etab.
- Argiteri sarean mantentze lanak egitea, elektrizitateko konponketa txikiak eraikin eta sarean sortu daitezken matxuretan. Kanalizazio sarean (zangak, hodiak, arketak, koadroak ...) mantenu lanak.
- Zenbait lorezaintza lan egitea: lurra prestatzea landaketarako, belar, sasi eta sastraken mozketa, zuhaitzen mozketa, zuhaizka eta adaxken kimaketa lanak. Zuhaitz gidak edo tutoreak jartzea, estakak jartzea, hesien eraiketa.
- Agintzen zaizkion errementaritzak, zurgintza eta margotze zenbait lan egitea herriko eraikin eta ondasun publikoetan.



## Lezoko Unibertsitateko Udala

### Ur eta estolderia sareak

- Ur sarean mantentze lanak egitea. Iturgintzako konponketa txikiak eraikin eta sarean sortu daitezken matxuretan,
- Uraren erretena burutzea dagokionean
- Saneamendu sarean mantentze lanak egitea. Konponketa txikiak eraikin eta sarean sortu daitezken matxuretan, Kanalizazio sarean (zangak, hodiak, arketak, ...) mantenu lanak, garbiketak.

### Ekitaldien antolamendua

- Jai eta ekitaldiak antolatzeko behar diren azpiegiturak, materialak prestatu, kargatu, garraiatu, deskargatu, bildu, zenbatu, materialaren mantenua, ...
- Oholtzen muntai eta desmuntatze lanak.
- Herriko jai eta ekitaldietan lan orduz kanpo (asteburuak, jai egunak, ...) burutu behar diren azpiegitura lanak burutu.

### Hilerria:

- Hilerriko mantentze lanak. Lorezaintza, igeltserotza, margotze, elektrizitate eta zurgintzan sortu daitezken lanen exekuzioa.
- Hilerrian ehorzketak egitea: prozedura, legezko baldintzak, lan arriskuak eta prebentzio neurriak.
- Hilerrian gorpuen hondakinak ateratzea: prozedura, legezko baldintzak, lan arriskuak eta prebentzio neurriak.

### Bestelakoak:

- Behar izatean zerbitzuarekin zerikusirik duten langileak antolatu, lanak antolatu eta behar diren baliabideak lortu.
- Zereginetan erabiltzen dituen ibilgailu eta tresnak mantendu eta egoera onean izatea.
- Arduradunek eskatutako ikastaroetan parte hartzea.
- Larrialdi egoeratan parte hartzea edozein egun eta orduetan.
- Laneko osasun eta segurtasun arauak betetzea.
- Hainbat materialen garraioa, kargatzea eta deskargatzea.
- Egunduz azpikontratatu den zerbitzurik municipalizatzen bada, zerbitzu hauek gauzatzea.
- Bere lanpostuaren kategoriaren arabera eta gaitasun eta ahalmen profesionalen baitan, egokitzen zaizkion bestelako eginkizunak egitea.

### **HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.**

Deialdian parte hartzeko baldintza hauek bete behar dira:

- Udal honetako Administrazio Bereziko karrerako funtzionarioa edota langile finkoa izatea. Horrez gain, lanpostu horretan egun lanean edo aparteko zerbitzu-egoeran egotea, eta aipatu lanpostua C2 edo AP(E) klasifikazio taldean sailkaturik egotea.
- DBH: Derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak edo baliokidea edukitzea.
- Gida baimena: B1.
- 2. hizkuntza eskakizunaren jabe izatea.

### **LAUGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKAERAK.**



## Lezoko Unibertsitateko Udala

Hautapen prozesu honetan parte hartzeko eskaerak udal honetako erregistroan egin beharko dira oinarri hauek udaleko iragarki taulan eta web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta gehienez ere bost laneguneko epean.

### **BOSGARRENA. IZANGAIEN ONARTZEA.**

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, alkate-lehendakariak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da. Era berean ebazpen horretan, Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatuko dira eta baita oposaketako ariketa egiteko data. Hiru lanegun izango dira erreklamazioak egiteko.

Erreklamaziorik ez baldin badago, behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat joko da automatikoki. Erreklamaziorik balego, ordea, onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeko emango den ebazpen batean, eta jendaurrean jarriko da aurrekoaren modu berean.

### **SEIGARRENA. EPAIMAHAIA.**

Epaimahaia partaide hauek osatuko dute:

#### Mahaiburua:

- Udal funtzionario bat

#### Bokalak:

- Hirigintza edo Brigada saileko funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat.

#### Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.

### **ZAZPIGARRENA. OPOSIZIOA.**

Oposizioak ariketa bakarra izango du, derrigorrezkoa eta baztertzalea.

Epaimahaiak emango duen denboraren barruan lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen proba praktikoa bat edo gehiago egin beharko dituzte hautagaiek.

Ariketa hau/hauek gehienez ere 30 punturekin baloratuko da/dira eta gainditzeko, gutxienez 15 puntu lortu beharko dira.

### **ZORTZIGARRENA. EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.**

Behin hautaketa-prozesuaren kalifikazioa amaitutakoan, Epaimahaiak punturik gehien erdietsi duen izangaia izendatzeko proposamena egingo du eta, aldi berean, berorren izena Udaleko iragarki-oholean eta web orrian argitara emango du.

Oposizioa izangaietako inork ez balu gainditu, Epaimahaiak deialdia hutsik uztea proposatuko du.



## Lezoko Unibertsitateko Udala

### **BEDERATZIGARRENA. ZERBITZU EGINKIZUNAK ETA PROBALDIA.**

Eskumena duen organoak Epaimahaiak proposaturiko izangaiari zerbitzu-eginkizunetan jarduteko ahalmena emango dio. Langileak hilabete bateko probaldia gainditu beharko du.

Probaldi hau ebaluatzeko garaian aintzat hartuko da izangaiak lanpostuko eginkizunak egoki egiten dituen. Zerbitzu buruak egingo du proba-epaaldari buruzko txostena, eta bertan gai edo ez gai den adieraziko du.

Txostenean ez gai adieraziko balitz, zerbitzu-eginkizunak amaitutzat joko lirateke, horretarako organo eskumendunak arrazoituriko akordioa hartuko lukeelarik.

Azken kasu honetan zein proposaturiko izangaiak lanpostuari uko egingo balio, organo ahalmenuak zerbitzu eginkizunetan izendatuko du, deialdia gaindituta, puntuazio hurrenkeran hurrengo lekuan legokeen izangaiari.

### **HAMARGARRENA USTEKAGABEAK.**

Epaimahaiak eskumena izango du, sor litezkeen zalantzak argitzeko eta, oposizioa ondo gauzatu dadin, hartu beharreko erabakiak hartzeko.

Sinatzailea                      Zinegotzi delegatua, Eneritz Arruti Osanbela

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:

Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/53/AAAAS9ZFC.q25c>